

HITZAURREA

DOI: 10.1387/lan-harremanak.17488

Lan Harremanak aldizkariaren zenbaki honek bi atal ditu: monografikoa, oraingoan *Negoiazio kolektiboa, langileen parte-hartzea eta enpresaren alderdi ekonomikoen eta kontabilitate alderdien sindikatu-kontrola* izenburuarekin, eta Atal Irekia.

Atal monografikoa, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak (Bizkaiko Campusa, EHU/UPV), *Consultoría Primero de Mayorekin* batera, antolatutako *Gizarte eta Laneko Aholkularitza Profesionalaren II Topagunean (Negoiazio kolektiboa eta sindikatu-kontrola. Lan- eta ekonomia-alderdiak)* aurkeztutako hitzaldiak eta komunikazio batzuk aurkituko dituzue eta, baita ere, beste aditu batzuen ekarpenak.

Negoiazio kolektiboari buruzko araudiak erreforma garrantzitsuak jasan ditu azkenaldian, horregatik eztabaidagai bihurtu da. Topagunearen antolatzaileek dioten moduan, krisi ekonomiko garaian, erabakigarri suertatzen da negoziazioan beharrezkoa den informazioa izatea, modu horretan, alde batetik, kontrola ahal delako enpresak ezarritako neurriak —iraizpenak eta lan-baldintzen okerragotzea— ekonomia-, ekoizpen- eta antolakuntzako arrazoi errealetan oinarritzen diren; eta bestetik, aukera sindikalak aurkeztu daitezkeelako, irabaziak lortzeko eta langileria menperatzeko enpresa-estrategiei aurre eginez, enplegua, ordainsariak eta lan-baldintzak mantentzeko helburuarekin.

II Topagune horretan, arlo desberdineko adituek parte hartu zuten —epai-leak, unibertitateak, sindikatuak...— informazio, kontrol eta kontsulta sindikaleko eskubideak aztertzeko: horien mugak eta norainokoak, Europar Batasuneko araudiaren eta jurisprudentziaren eragina, langileen ordezkariak eskubide horiek ikuskatzeko aukera ...

Hitzaldien artean, aipagarriak dira hurrengo hauek: «La Administración de Justicia ante los derechos de información, consulta y control sindical», Kataluniako Justizi Auzitegi Nagusiko Magistratua den Carlos Hugo Preciado Do-

menech jaunak aurkeztutakoa; «La documentación pertinente en los despidos por causas económicas, técnicas, organizativas y de producción», Auzitegi Nazionaleko Sozial Salako Magistratua eta Presidentea den Ricardo Bodas Martín jaunak aurkeztutakoa; eta, «La información para la negociación colectiva y el control sindical desde la perspectiva de la auditoría sociolaboral», Cadizeko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Katedradun den Eva Garrido Pérez andereak aurkeztutakoa. Ondoren, beste adituek egindako lanak aurkituko dituzue. Hainbat direnez, eta hitzaurrea ez luzatze arren, ez ditut guztiak aipatuko.

Atal Irekiari dagokionez, bi dira topatuko dituzuen lanak: lehena, «¿Cabe utilizar la negociación colectiva para integrar laboralmente a las personas con discapacidad? Una propuesta a la luz de la experiencia francesa» izenburuarekin, Cadizeko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea den María Isabel Ribes Moreno andereak aurkezten du; bigarrenak «No se ve, no se toca y sin embargo, existe: La esclavitud hoy. Hacia una reconceptualización del trabajo esclavo» izenburua daraman eta UPV/EHUko kolaboratzailea den Mikel Urrutikoetxea Barrutia jaunak idatzia.

Azkenik, azaldu nahi dut, autore guztien estiloa ahal den neurrian errespetatzen saiatu garela.

M.E. LÓPEZ